

Arabako Foru Aldundiak plataforma berri bat jarriko du abian datorren astelehenean, 2026ko ekainaren 8an, lan eskaintza publikoak eta lan poltsak kudeatzen dituen egungo Enplegu Publikoaren Atariaren ordean.

Atari berrira [esteka](#) honen bidez sartu ahal izango da.

Ohar garrantzitsua:

Sistema berria abian jartzen denean, erabiltzailea eta pasahitza ez dira erabilgarri egongo; atarian identifikatzeko, BAKQ edo ziurtagiri elektronikoa eduki beharko da.

Erabiltzaileek identifikazioarekin lotutako edozein gorabehera adierazi edo kontsulta egin ahal izango dute Aldundi Digitalaren Erabiltzaileen Arreta Zentroan (CAU), honako kanal hauen bidez:

- egoitza.sede@araba.eus (izen-abizenak, NANA eta telefonoa adierazita).
- **945.569.028** (astelehenetik ostiralera, 8:15etik 14:30era, jaiegunetan izan ezik).

Berritasuna:

Indarrean dauden lan poltsetan sartuta daudenek baino ezin izango dute kontsultatu zein egoeratan eta postutan dauden.

Vitoria-Gasteiz, 2026/06/01